

1. Euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren hastapenak

Sortu zenetik Euskal Telebistako lehen katea izan da euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren bezero nagusia eta zenbait unetan ia bakarra. Egia da azken urteotan euskaraz bikoiztu edo azpidatzitako filmak zinema-aretoetara eramateko eta euskaraz bikoiztu edo azpidatzitako DVD edo bideo formatuko produkzioak bultzatzeko hainbat saio eta ahalegin egon direla, baina guztiarekin ere ezberrik gabe esan daiteke ETB-1en inguruan bildu dela eta gaur egun ere biltzen dela euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren jarduera profesional eta ekonomiko gehiena.

Arrazoi horregatik egokia iruditu zaigu lehen kapitulu honetan euskarazko ikus-entzunezko itzulpena sortu zen testuinguruan kokatu eta euskal telebista publikoaren hasierako urteen berri laburra ematea, betiere ikus-entzunezko itzulpena aintzat hartuta. Horretarako urte haietako programazioaren ildo nagusiak deskribatuko ditugu; izan ere, urte haietan hasi baitzen garatzen orain dugun telebista-eredua.

Uste dugu emango ditugun datuak baliagarriak izan daitezkeela Euskal Telebistak bere hastapenetan ezarri zuen ereduaren halako erradiografia orokorra ateratzeko eta gaur egun euskarazko telebistak jarraitzen duen ereduak non dituen sustraiak ulertzeko.

1.1. EUSKAL TELEBISTAREN SORRERA ETA PROGRAMAZIO-EREDUA

Eusko Legebiltzarrak, Gernikako Autonomia Estatutuaren 19. artikulua xedatzen duenari jarraiki, “Euskal Irrati-Telebista EITB” erakunde publikoa sortu zuen maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen bitartez (1982ko ekainaren 2ko EHAA, 71. zk.). Legearen atarikoak berak ezartzen du Euskal Telebista hezkuntza-sistemaren eta euskal kultura sustatu eta zabaltzeko «oinarrizko lankidetasun-tresna» dela, aldi berean euskararen sustapena eta zabalkundea «bereziki kontuan izanik».

Geroago hainbat datu eskainiz zehaztuko dugun arren, oraingoz esan dezagun euskarazko telebistaren hasi-masietan kanpo-produkzioa izan zela Euskal Telebistako arduradunek euskara sustatu, zabaltzeko eta normalizatzeko hautatu zuten bidea. Barne-produkzioa bultzatzeko beharrezko azpiegiturarik gabe eta euskarazko


Ikus daitekeenez, emititutako programa gehienak entretenimendurakoak dira. Izan ere, fikzioko generoek kanpo-produkzioaren % 90 osatzen zuten ia, horien artean telesailak (*Dallas, Bostak* eta *Txikago*), azken bost urteetan euskarazko pantailatik erabat desagertu direnak. Egungo egunetan bezala, hasierako urte haietan ere marrazki bizidunek tarte zabala hartzen zuten ETB-1eko programazioan.

1992ko programazioari begiratu bat botatzen badiogu, ikusiko dugu nola kirol-programei eskainitako saioek pisu handia hartzen duten, gaur egun gertatzen denaren antzera. Guztiarekin ere, garai hartan telesailak, marrazki bizidunak eta filmak ziren euskarazko telebistaren eskaintza nagusia osatzen zuten programak, hau da, kanpoan erosi behar ziren eta euskarara itzuli-egokitu eta euskaraz bikoiztu behar ziren programak.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRUA	LAGUNBETA	IGANDEA
11.00	1992 PROGRAMAZIOA						LOU WILCOX
12.00							TRAKO BOLA
13.00							ATOLI
14.00	DOKUMENTAL SOPHOCLES - SUMMITRA GARRIBAN						TRAKO BOLA
15.00	SOTREAN GUTU RIVIERA						NYKEM
16.00	KAZARUA						THALASA
17.00	HERAN	ZUZUR ZUZURKAN	SOZIO EDNE GABI	SUNTARA	IPILUAN	MARKAZEN FETA Compartir base logros, Mira Rosales, Zine, Fregidant, Pepi, Olivier Sola	
18.00	MARKE PLAZAN	SHAKESPEARE SIRKETA	MISTERIO GUTUAK	BI ETA BAT	SIT POINT (TENDIA)	KORUZE KOROL	
19.00	COKUS MARRAZ GORRA MARRAZKI BOZLANDE						SASIBALOA AZI USA
20.00	PARRIKAI						HERAN
21.00	GARRIBAN - OGURALDA - DOKUMENTAL ZITELU						GARRIBAN
22.00	IZI ROCK	SPARK KANDE GABE	HEROL ASTALDEN	HERRO PLAZAN	SUPERMARRAZKI	KORUZE KOROL	
23.00	NYKEM MOTEL	BI ETX GABI	HEROL ASTALDEN	ALDIZ ISTORIO GODIA	HERRO MOTEL	KORUZE KOROL	
24.00	HERAN	ZINE GARRI	OPILUAN	MISTERIO GUTUAK	HERRO MOTEL	KORUZE KOROL	
01.00	GARRIBAN	GARRIBAN	GARRIBAN	GARRIBAN	GARRIBAN	GARRIBAN	

INFORMAZIOAK
 ZINEA
 GAZTE PROG.
 KIROLAK
 TOLDEAK
 KULTURAK
 ENTRETENIMENDUA

Hurrengo grafikoan erakusten denez, 1988tik aurrera gauzak aldatzen hasiko dira. Barne-produkzioa indar handia hartuz joango da¹ eta kirol-saioak astebukae-retako errege bihurtu, kanpo-produkzioaren kaltetan eta, hortaz, ikus-entzunezko itzulpenaren eta bikoizketaren kaltetan.



Iturriak: Garitanoindia (1983), Ibañez Serna eta Marin Murillo (1988), Zabaleta (1988) eta *Informes Sectoriales de la CAV* (1994).

Orain dela oso gutxi arte ETB-1ek film bakarra eman izan du astean zehar igande gauean, azken hilabeteotan bi eman izan baditu ere, igande gauean biak ala biak eta bata bestearen ondotik. Halaber, lehenago adierazi bezala, teleailek euskarazko telebistaren bizkarrezurra osatzen bazuten ere, aspaldi desagertu ziren euskarazko pantailatik. Garai batean ETB-1ek hiru eta are lau film ere ematen zituen astean zehar eta beste horrenbeste telesail, marrazki bizidunekin eta dokumentalekin batera. Horrek esan nahi du hasierako urteetan itzuli eta bikoiztu beharreko lan asko zegoela eta itzultzaile-egokitzaila eta bikoizleen premia handia egon zela. Baina gauzak asko aldatu dira eta gaur egun ia bakarrik marrazki bizidunei esker jarraitzen du bizirik ikus-entzunezko itzulpenak.

1. Euskaraz sortutako lehen telesaila, *Hau da A.U.*, 1990eko urriaren bostean estreinatu zen.

1.2. BIKOIZTUTAKO PRODUKTUEN JATORRIA

Zer pantailaratzen den bezain garrantzitsua da nongo produktuak pantailaratzen diren, produktuak ez ezik tokian tokiko erreferente kulturalak eta mundua ikusteko eta ulertzeko era desberdinak ere inportatzen baitira. Azken finean, produktu gehienak herrialde jakin batetik ekartzen badira, herrialde jakin horrek irudia erabat kolonizatzeiko arrisku bizia dago.

Gaur egungo kanpo-produkzioaren jatorria aztertzen duen ikerlanik egin bitartean, hasierako hamar urteetako kanpo-produkzioaren jatorria aztertzen duen lan baten ondorioak (Barambones, 2005b) ekarri nahi ditugu orri hauetara. Lan horretatik ateratzen den ondorio nagusia hau da: kanpo-produkzioaren % 59 Estatu Batuetatik etorri zen. Datu horri beste hau eransten badiogu, hots, Erresuma Batua sorlekutzat zuten programen kopurua, datu esanguratsu hau ateratzen dugu: kanpo-produkzioaren % 75 ingelesdun herrialde batetik dator. Hortaz, euskarara itzuli beharreko produktu gehienek sorburu-hizkuntza ingelesa da, eta, zehatzago, Estatu Batuetako ingelesa.

Horiek horrela, hasierako hamar urteetan ETB-1ek pantailaratu zituen filmen % 56 Estatu Batuetan ekoiztutako produktuak izan ziren. Fikzioko telesailak ere Estatu Batuetatik ekarritako produktuak ziren gehienbat.

Marrazki bizidunen esparrura aldatzen garenean, eta gaur egun gertatzen den bezalaxe, Japoniako *manga* produktuak gailentzen zaizkie Estatu Batuetako edo beste herrialde batzuetako marrazki bizidunei. Hain zuzen ere, marrazki bizidunen % 56 Japoniatik dator; Estatu Batuetatik, berriz, bakarrik % 30.

Manga marrazki bizidunen kasuan gaztelaniatik itzultzen dira gehienbat, eta ez ingelesetik. Halaber kontuan hartu dugu euskarara itzultzeko erabiltzen den bertsioa japonieratik edo zenbait kasutan ingelesetik gaztelaniara egindako itzulpenean oinarritzen dela. Ezin ahaz dezakegu sorburu-hizkuntzak eragin zuzena duela itzulitako bertsioan eta, beraz, emititutako produktuaren hizkuntza-ereduan, hizkuntza batetik edo bestetik itzultzean itzultzaileek hartzen dituzten erabakiak eta jarraitzen dituzten arauak desberdinak baitira.

1.3. ITZULPEN-EGOKITZAPENAREN ETA BIKOIZKETAREN HISTORIA

Euskarazko ikus-entzunezko itzulpena Euskal Telebistaren jaiotzarekin batera sortu zen, edo, zehatzak izatera, Euskal Telebista sortu baino bi urte lehenago, hain zuzen. Euskal Telebista abian jartzeko egitasmoari esker, lehenago existitzen ez zen azpiegitura bat arian-arian osatuz joango da. ETBren egitasmoa garatuz joan zen bitartean, ezerezetik *atera* behar izan ziren itzultzaile, egokitzatzaile eta bikoizleak.

Data jakin bat zehaztea zaila den arren, arakatu ditugun iturrietan oinarri harturik, 1980. urteko udazkenean koka daiteke euskarazko bikoizketaren sorrera, ETBk lehenbiziko transmisioa egin baino bi urte lehenago². Euskal telebistaren egitasmoa gauzatzen ari zenarekin batera beharrezkoa zen kanpoko programak euskaraz eman ahal izateko egitura egokia eraikitzea. Kanpoko programen beharra justifikatzen duten arrazoiak orduan Kultura sailburua zen Ramon Labayenen adierazpen hauetan aurkitzen ditugu: «Surge [Irrati-Telebista Eskola] por una razón muy sencilla: evidentemente, para hacer una televisión en euskera, las dificultades eran inmensas, *porque los gustos del público estaban ya adaptados a un mercado, un mercado que ofrecía muchas series y películas y, por tanto, el material doblado tenía que ser una parte importante en la programación de la televisión que queríamos hacer. Además era mucho más fácil empezar así. Pero necesitábamos dobladores*» (Díez Urrestarazu, 2003: 23. Letra etzana gurea da).

Bikoizketa-lana eta, aurretik, ikus-entzunezko testuen itzulpen-egokitzapen lana eraz egiteko ez zegoen ez azpiegiturarik ez aurretiko esperientziarik ikus-entzunezko itzulpenaren alorrean, ezta euskara adierazpidetzat zuen zine-industriarik ere. Beraz, ikus-entzunezko itzulpena eta bikoizketa alor jorratu gabeak ziren euskararentzat.

Tradiziorik ezari beste eragozpen bat gaineratu behar zitzaion: garai hartan oso gutxi ziren euskaraz egokiro lan egiteko gai ziren hedabideetako profesionalak. Arrazoi horiek guztiak direla eta, hutsetik hasi behar izan zen, dena *ex novo* sortu, eta euskaraz emitituko zuen telebista bat gauzatzeko egitasmoa aurrera aterako bazen, premiazkoa zen profesionalak prestatzea, hala itzulpen eta bikoizketa arloan nola alderdi teknikoetan.

Horiek horrela, 1980ko udazkenean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Irrati-Telebista Eskola abiarazi zuen Donostiako Prim kalean. Xabier Mendiguren, Martuteneko Itzultzaile Eskolako zuzendaria izan zena, hizkuntz aholkulari eta itzulpen-eskoletako arduraduna izan zen. Telebistan arituko ziren eta telebistarako lan egingo zuten gainerako profesionalak prestatzeko Espainiako hedabide batzuetako profesionalengana ere jo zuten Kultura Saileko arduradunek, Díez Urrestarazuk aipatzen duen bezala (2003: 24):

Vinieron profesionales de varios estudios de doblaje de Barcelona y profesores de la universidad catalana para impartir un buen número de clases, porque allí se daban asignaturas no sólo de traducción y redacción, sino de dramatización, pronunciación y locución, para lo que la presencia de profesionales del doblaje y los medios como María Jesús Lleonard de los estudios de doblaje «La voz de España» o Emili Prado, resultaba imprescindible [...].

2. Euskal Telebistak bere lehenbiziko programa 1982ko abenduaren 31n eman zuen. Orduko lehendakariaren urteberriko mezuaeren ostean, *Rutas de Euskadi* dokumentalak, *Espaziozainak* marrazki bizidunek eta *Poxpoloak saltzen zituen neskatoa* telefilmak osatu zuten estreinako emisioa.

Díez Urrestarazuk esaten digunez (2003: 25), bi kurtso mota zeuden: bata, lokuzioa eta jendaurreko aurkezpenak lantzerantz zuzendua, eta bikoizketa prestatzera bestea. Irrati-Telebista Eskolako egoitzan bertan bikoizketa-estudio batzuk atondu omen ziren. Estudio horietan, hain zuzen ere, egin ziren euskarara bikoiztu ziren lehen filmak.

Larrinagak (2000a), ETBko Euskara Saileko egungo arduradunak, honela ikusten ditu hasiera-une haiek:

En 1981 dio comienzo en la calle Prim de San Sebastián un curso enfocado en los aspectos lingüísticos y artísticos del trabajo en radio y televisión. Los futuros locutores de radio y televisión, presentadores y dobladores fueron instruidos durante año y medio por un amplio equipo que Iñaki Beobide había reunido. Xabier Mendiguren, director de la escuela de traductores de Martutene, se encargó de la instrucción lingüística. Xabier Elorriaga, actor y profesor universitario, dio clases de expresión corporal y dramatización. Xabier Lete, Iñaki Zubizarreta y otros profesionales de Radio Loyola y Radio Popular de San Sebastián, únicas emisoras en euskara de la época, se ocuparon de la formación en locución y dicción. Para la preparación y el adiestramiento en las técnicas del doblaje, se contó con dobladores madrileños y barcelones de prestigio, como Felipe Peña.

Irrati-Telebista Eskola sortu eta handik urtebetera, hau da, 1981ean, Kultura Sailaren barruko txosten baten arabera, lehenengo bikoizleak³ prest zeuden, eta hori dela eta, urte bereko azarotik aurrera hasi ziren Euskal Telebistako programazioa aurrera ateratzeko beharrezkoak ziren lehenbiziko materialak prestatzen eta gordetzen.

Hasiera batean Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila arduratu zen ETB abian jartzeko nahitaezkoak ziren ikus-entzunezko produktuak nazioarteko merkatuetan erostez. Estreinako erosketa haiek ez ziren errazak izan eta traba eta eragozpen asko gainditu behar izan omen zituzten, ikus-entzunezko merkatua telebista-kate nazionalak —horien artean Espainiako telebistak— kontrolatzen zutelako. J. J. Azurza Eusko Jaurlaritzako Gizarte Hedabideetako zuzendari ohiaren esanetan, ETBri produktuak salduz gero estatuetako telebista-kate handiek produktu gehiagorik erosiko ez zieten beldur ziren saltzaileak. Oztopo gehienak Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako enpresa banatzaileetatik zetozen, Espainiako ikus-entzunezko merkatuaren hornitzaile nagusiak baitziren. Horregatik, hasiera batean, ETBko Programa Zuzendariordetzako arduradunek Europako ekialde eta erdialdeko merkatuetara jo behar izan zuten, hor ez zegoelako telebista-kate berri bati programak saltzeko halako errepatorik edo errezelarik; gainera, salneurriak askoz

3. Gehienetan “bikoizketa” eta “bikoizleak” aipatu ohi dira, “itzultzaile-egokitzaileak” alde batera utzita. Kontuan hartu behar dugu, halere, eta bakoitzari dagokiona kendu gabe, itzultzaile-egokitzaileen lana bikoiztaileena bezain garrantzitsua dela. Horregatik, itzultzaile-egokitzaileen lana ere aipatu ez ezik aldarrikatu ere egin behar dela uste dut.

ere merkeagoak ziren. Ramon Labayenek honela ematen digu egoera horren berri (Díez Urrestarazu, 2003: 27):

Desde el principio tuvimos dificultades para comprar películas. No se nos vendía nada. Intentamos adquirir películas inglesas. Supongo que TVE presionaba sin duda en este sentido. Alguién logró comprar por fin en Milán unos dibujos animados búlgaros. Pienso que la gente de aquella época se acordará. No eran especialmente buenos, pero tenían la virtud de que nos los vendieron.

Euskal Telebistari ikus-entzunezko produktuak saltzeko zeuden erreparoeke oso ongi argitzen dute ETBk 1982an atzerrian erosi zituen 500 programazio-orduetatik erdiak baino gehiagok, besteak beste, Bulgaria, Errumania eta Jugoslavian jatorria izatea. Geroago, Kataluniako TV3 telebistarekin egindako hitzarmenari esker, *Dallas* bezalako telesailak erosi ahal izan zituzten eta BBC edo “Thames” bezalako produkzio-etxeekin kontratuak egin.

Ibáñez Sernak bere doktore-tesian jasotzen duenari jarraiki (1992: 131), Donostiako bikoizketa-eskola izan zen Eusko Jaurlaritzak telebistan egiten zuen estreinako inbertsioa. Egile horrek ematen dituen datuen arabera, eskola horrek arlo guztietako hirurogeita hamarren bat ikasle prestatu zituen, eta horien artean, itzultzaileak, testu-egokitzaileak eta bikoizleak.

Donostiako Irrati-Telebista Eskola hartatik hiru promozio atera bide ziren. Eskola barruan Filme Bikoiztuen Zerbitzua edo, beste iturri batzuen arabera, Filmen Bikoizketarako Zentroa (FIBIZE) sortu zen. Zerbitzu edo zentro horrek jatorrizko gidioen lehen itzulpen-egokitzapenak egin eta lehen filmak bikoiztu zituen. Nolanahi ere, hala eskolaren nola bikoizketa-zerbitzuaren bizitza ez zen oso luzea izan, bi-
biak desagertuko baitziren euskal telebista publikoa jaio aitzin.

Euskal Telebista sortu aurreko itzulpen-egokitzapen eta bikoizketa-prozesua honela laburbil dezakegu: Kultura Saileko arduradunek nazioarteko merkatuan erosten zituzten ikus-entzunezko produktuak; behin erosiz gero, Filme Bikoiztuen Zerbitzura bidaltzen zituzten eta zerbitzu horrek Irrati-Telebista Eskolako itzultzaileen artean banatzen zituen. Jatorrizko gidoia itzultzen bukatzen zutenean, itzultzaileek egokitzapenaz arduratzen ziren pertsonen eskuetan uzten zuten itzulitako gidoia, itzulpena pantailaren beharretara egokitzearen. Gidoia egokitutakoan, FIBIZEko egoitzan bertan zegoen bikoizketa-estudiora bidaltzen zen eta han dramatizazio-lana egiten zen. Inon jasorik ez badago ere, pentsatzekoa da itzulpen-egokitzapen lanek zein bikoizketak Filmen Bikoizketarako Zentroak ezarritako kalitate-iragazkiren batetik igaro beharko zutela.

Hastapenetan Donostiako bikoizketa-eskola eta ikasleak Eusko Jaurlaritzari lotuta egon ziren, baina Jaurlaritzako arduradunek enpresa pribatuen ardurapean utzi nahi zuten telebistarako bikoizketa. Nahi edo asmo horren ondorioz, 1982ko uztailaren 2an Eresoinka sozietatea eratu zen. Egoitza Andoainen zuen eta hasieran

300.000 mila pezetako kapitalarekin osatu zen. Sozietatea sortu zutenen artean honako hauek zeuden: Iñaki Anasagasti, haren anaia Joseba Anasagasti, Gorka Joseba Agirre, Juan Antonio Arcelay eta Iñaki Goiri Barron.

Larrinagak (2000a) aipatzen duenez, sorreran Eresoinka sozietatea bakarrik bikoizketaz arduratzen zen eta FIBIZEk gidoiak itzultzen zituen Xabier Mendigurren ardurapean. Halere, Eresoinka sortu eta berehala, FIBIZEren eskuetan zegoen material guztia enpresa berri horretara pasatu zen.

Kontuan hartu behar da 1982. urtean ETB sortu gabe zegoela artean ere, eta, beraz, prestatzen ari ziren material guztia erreserban gordetzeko zen. Era horretan, ETB emititzen hasten zenerako, emisioak bermatzeko behar beste material gorderik izango zuten Euskal Telebistako programazio-arduradunek. Behin eta programa-erreserba nahikoa sorturik zegoenean, bikoizketa-beharrak programazioaren egiturari egokitu zizkion.

Lehenbiziko fase horretan itzulpen- eta egokitzapen-lanak pertsona desberdinek egiten zituzten. Itzultzaileek sorburu-hizkuntzatik euskarara aldatzen zituzten gidoiak eta soil-soilik edukiaren transferentzia egokiaz arduratzen ziren. Testua itzuli ondoren egokitzaleen eskuetan uzten zen. Egokitzaleak sinkronia-arauak errespetatu eta testu ikus-entzunezkoak ahozko hizkeratik ahalik eta hurbilen egoten eta al bait komunikatiboen izaten saiatzen ziren.

Jardunbide horrek ez zuen denbora asko iraun, luze gabe lehen bi lagunek egiten zuten lana pertsona bakar batek egitera pasatu baitzen. Horrela, itzultzaile-egokitzalearen figura gailendu zitzaien itzultzailearenari eta egokitzalearenari eta azkenean guztiz finkaturik geratu zen Euskadiko bikoizketa-estudioetan. Gaur egun, eta esaterako Valentzia edo Galizia autonomia-erkidegoetan gertatzen denaz bestera, hemengo bikoizketa-etxeetan pertsona beraren eskuetan dago ikus-entzunezko testuen itzulpen eta egokitzapena.

ETBko kanpo-produkzioaren eskaerari, hau da, filmen, telesailen, marrazki bizidunen eta dokumentalen eskaerari, erantzun nahirik, beste bikoizketa-enpresa bat sortuko da 1982ko maiatzean: Galdakao Estudios. Bikoizketa-estudio berri hau Xoxoa disketxetik sortu zen. Xoxoa enpresak diskogintzan lan egiten zuen eta harrez gero ikus-entzunezko produktuen bikoizketa kudeatzeaz ere arduratuko zen.

Dramatizazio-lana, hots, bikoizketa, Xoxoa produkzio-etxeke estudioetan egiten zen eta itzulpen-egokitzapen lana beren kasa ziharduten itzultzaileek burutzen zuten.

Bigarren bikoizketa-etxea sortu eta itzultzaile-egokitzale eta bikoizle talde profesional zabala eratzearen, Bilbon ere bikoizketa-ikastaroak eman zituzten. Ibáñez Sernak (1992: 146) ematen dituen datuen arabera, Bilbon hogeita bi lagunek bukatu zuten ikastaroa. Bilboko taldeari Donostiakoa gehitzen badiogu,

guztira berrogeita hamar bat laguneko taldea osatuko zuten hastapenean ikus-entzunezko itzulpengintza eta bikoizketan ziharduten profesionalak. Guztiarekin ere, talde hori ez zen nahikoa Euskal Telebistak bikoizketa arloan zituen beharrak asetzeko, guztien artean beharren % 50 baino ez baitzuten betetzen. Geroago profesional horiek lanean hasiko ziren Andoaingo eta Galdakaoko bikoizketa-estudioetan.

EITBko Administrazio Kontseiluak ematen dituen datuetan oinarriturik, 1983ko martxoan, hau da, Euskal Telebista jaio zenetik hiru hilabetera, 100 bat profesionalak ziharduen lanean kanpoko programak euskarara aldatzen eta bikoizten, ETB-1eko programa-beharrei erantzuteko.

Galdakao Estudios enpresak izena aldatu zuen eta hortik K2000 SA bikoizketa-enpresa sortu zen. Gaur egun K2000k Galdakaon du produkzio-egoitza eta bikoizketan zein ikus-entzunezko produkzioan aritzen da.

1985. urtean zatiketa bat gertatu zen K2000 enpresaren barruan eta enpresarekin loturik egon ziren zenbait langilek beste bikoizketa-enpresa bat sortu zuten: Edertrack, gaur egun Bilboko Sabino Arana kalean egoitza duena.

1986. urtean Eresoinka sozietatea bere jardueraren zati bat enpresa-talde bereko beste enpresa bati ematen hasi zen eta era horretan Irusoin bikoizketa-etxea eratu zen.

Orain dela gutxi, 2004. urteko udan, Edertrack eta Irusoin bikoizketa-etxeek bat egin zuten eta sozietate berria eratu zuten: Mixer Producciones Audiovisuales SL.

Zabalondok aipatzen duen bezala, «egun lanbidea gain behera etorrita dago» (2005: 304). ETB-1eko programazio-ereduak ez dio batera laguntzen lanbideari eta hasierako urteetako *boomari* dagoeneko urte batzuk dirauen beheranzko joera etengabeak jarraitu dio. Bikoizketa-etxeek emandako datuen arabera, gaur egun hogeita bost bat itzultzaile-egokitzaile aritzen dira lanean arlo honetan, ia guztiak autonomo gisa lan egiten dutenak.

1.4. IKERKETA-BIDEAK IKUS-ENTZUNEZKO ITZULPENGINTZAREN ALORREAN

Espanian eta mundu osoan zehar azken hamar urteetan ikus-entzunezko itzulpenari buruz egon den ikerketa-uholdea kontuan hartzen badugu, euskarazko ikus-entzunezko itzulpenari buruzko ikerlanak urriak baino urriagoak dira. Euskarazko ikus-entzunezko itzulpena, gure mendean duen garrantziaren eta eraginaren zabala gorabehera, esparru akademikoetatik eta ikertzaileen ikusmiratik at egon da, literaturako itzulpenaren aldera bigarren mailako itzulpen-jardueratzat hartu izan delako; halaber, arlo honetan diharduten profesionalak ere ez dute hartu egiten duten

lanari buruz gogoeta egiteko denborarik edo patxada nahikorik, ziur aski lan mota honek ezartzen duen erritmo frenetikoak eragotzita.

Azken bizpahiru urteetan hainbat ikerlan bideratu dira unibertsitatearen talaiatik eta beste batzuk ere abian dira dagoeneko. Nolanahi ere, euskarazko itzulpenaren esparruan dena eginkizun dago. Egoera honek ikerketa-bide guztiak zabalik uzten dizkie arlo honetan murgildu nahi duten ikertzaile guztiei.

Orain arte egin diren ikerketek erakutsi dutenez, Itzulpen Ikasketa Deskriptiboek⁴ arlo honi ekiteko beharrezkoa den oinarri zientifiko eta metodologikoa eskaintzen dute. Itzulpen Ikasketen diziplina guztiz enpirikoa da eta eta Toury-ren arabera (1995:1) xede hauek izan behar ditu:

[...] no empirical science can make a claim for completeness and (relative) autonomy unless it has a proper *descriptive branch*. Describing, explaining and predicting phenomena pertaining to its object level is thus the main goal of such a discipline.

Hortaz, gure ikerketaren lehenengo urratsak zuzendu beharko ditugu orain arte egin dena deskribatzera. Itzulpen Ikasketen adar deskriptiboak egin diren edo egiten diren itzulpenen berri emango digu. Hartzen dugun ikuspuntua hartzen dugula ere, gure ikerketa egiazko jarduera profesionalean oinarritu behar da. Gure teoriak oinarri enpirikoa izan behar dute eta tokian tokiko errealitatearekin uztarturik egon beharko lukete. Hipotesi hutsetan zimendatzen diren teoriak balio gutxi dute eta gai honen irakaskuntzari ez diote inolako mesederik ekartzen

Itzulpen Ikasketen diziplinartekotasuna aintzat harturik, egingo diren ikerlanek hizkuntzaren ikuspuntutik ez ezik alderdi edo saihests kulturaletik eta soziologikotik ere heldu beharko diote ikus-entzunezko itzulpenari. Ikus-entzunezko produktuak itzuli eta egokitzeko jarraitu diren itzulpen-estrategiak eta itzulpen-estrategia horietatik ondorioztatzen diren arauak ikertu beharko dira; era berean aztertu beharko dugu zer-nolako eragina duten ikus-entzunezko produktuek produktu horiek kontsumitzen dituen gizartean eta nola hartzen dituen produktu horiek gizarteak. Euskararen kasuan sakon aztertzea mereziko lukeen gaia da nolako eragina izan duen edo duen ikus-entzunezko itzulpenak euskararen normalizazioan eta noraino laguntzen duen hainbat hizkuntza-erabilera, hitz, esapide eta abar normalizatu eta zabaltzen.

Halaber, ikerlanek ikus-entzunezko genero guztiak aztertu beharko lituzkete, eta ez bakarrik filmak. Besteak beste, dokumentalak eta marrazki bizidunak ere azterkizun izan beharko lituzkete ikertzaileek.

4. Itzulpen Ikasketa Deskriptiboak zer diren ulertzeko baitezpadakoa da, besteak beste, egile hauen lanak irakurtzea: James S. Holmes-en *The name and nature of Translation Studies* (1988), Gideon Toury-ren *Descriptive Translation Studies and beyond* (1995) eta Theo Hermans-en *Translation in systems. Descriptive and Systemic Approaches Explained* (1999).

Hemen bakarrik azter daitezkeen hainbat gai azaldu baino ez dugu egin. Ikus-entzunezko itzulpena oso alor erakargarria da, ikerketa-bideak era askotarikoak dira eta euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren kasuan ikerketa arlo berria zabaltzen zaie esparru honetan murgildu nahi duten guztiei.